

VII. Argazki lehiaketa ONDAREARI BEGIRA

Ondarearen begiradak argazki-lehiaketaren VII. edizio honetan, Utzitako ondareari begiratzen diogu. Ondare hori isilarazi egin dela dirudi, eta begirada ugariren bidez berreskuratu nahi dugu.

Ondareari begira-ren helburuak

Ondareari Begirarekin, Ondarebiziatik, irisgarritasuna landu nahi dugu, museoetatik kanpo, denengana iritsi nahian formatu ezberdinen bidez, betiere, ondare-hezkuntzatik habiatuz.

Aldi berean, herritarrei sormena garatzeko eta erakusteko espazioak ahalbideratzea nahi dugu. Hau guztia posible izateko kontuan dugu teknologia berriek duten garrantzia beraien gaitasuna ezagutzera eman dadin.

Kulturan jakitun diren eragileekin lan eginez, gaitasuna igarri nahi dugu.

Aurtengo edizioko oinarriak:

● GAIA- **Utzitako Ondare**

"Zaindu zuen monumentuak eta ez duzue zaharberritu beharrik izango". John Ruskin
(1819-1900)

Zeren menpe dago kultura-ondarea babestea eta mantentzea? Ba al dago adostasun sozialik zer elementuri buruz edo zer elementuk ez duten bizirik irauten eta zein ez diren babesten etorkizuneko belaunaldientzat?

Testuinguru espezifikoko baten barruan, gizarteak balio bat edo beste ematen dio kultura-ondareari. Zenbait elementu, espazio eta adierazpen babestu egiten dira, beren esanahiagatik, ekarpenagatik eta ezaugarriengatik, eta interes kulturalerako ondasun materialtzat eta immaterialtzat hartzen dira, baita denboran zehar iraungo dutela ziurtatzen duten zerrenda ofizialetan ere.

Gizarte-ekimen batzuek beren tokiko komunitateetako elementu jakin batzuen ondare-balioa aldarrikatzen dute, kultura, bizimodu eta komunikazio-modu jakin batzuen adierazgarri, eta elementu horien balioa nabarmentzen dute.

Beste ondare batzuk, arreta, babes eta mantentze faltagatik, pixkanaka hondatzen doaz, eta, azkenean, ahaztu egiten dira.

VII. edizio honetan, gure begiradak utzitako ondarrera zuzentzen dira, denbora eta espazio batez beren anonimotasunetik erreskatatzeko. Denboraren arrastoagatik, naturaren berjabetzeagatik edo giza ekintza edo inakzioagatik desegiten edo diluitzen den ondarea; izoztuta bezala irauten duen ondarea, izan zena bezalako isiltasunean beren burua aldarrikatzeko lasaitasun batean eta betiko ez desagertzeko azken arnasaldi batean.

● BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Gaiaren tratamenduan berritzaileak izatea: enfokatzeko era berriak, originaltasuna.
- Sormena
- Kalitate teknikoa: irudiaren kalitatea baloratuko da.

● PARTAIDETZA

Interesatua dagoen edonork parte hartu ahalko du, profesionalak edo amateurak, 18 urtetik aurrera.

● PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 2 argazki aurkeztu ahalko ditu: 1280 pixel gutxieneko dimentsioa, 300ppp eta JPG formatuan.

Parte hartzaileek bere gain hartzen dituzte argazkietan agertzen diren pertsonen baimenak, eta erreklamatu daitezkeen erresponstabilitateak.

Lehiaketa honetara aurkeztutako argazkiak originalak izango dira eta bakarrak, ezin izango dituzte utziak izan euren baimenak, eta ez dira onartuko ere beste lehiaketa batean sarituak izan diren argazkiak. Argazkiak beraien egileengatik soilik izan daitezke aurkeztuak.

Lehiaketa honetara aurkeztutakoek beraien datuak eta argazkiak Internet-en bozkaketa prozesurako eta honen difusiorako publikatuak izatea onartzen dute, hala nola lehiaketa honetako fototekan, betiere euren autoretza adieraziz.

Argazkien egile-eskubideak argazkilariarenak izaten jarraituko dute. Lehiaketaren erabakiaren ondoren antolatzaileek ez dute aurkeztutako materiala itzuliko.

Antolatzaileek deialdi hau hustzat jo dezakete.

Aurkeztutako argazkiak Ondarebiziko artxibo historikoaren parte izatera pasatuko dira. Hurrengoko edizioen promoziorako edo barneko kontsultetan erabili ahalko dira.

Parte-hartzaileak onartzen du argazkiak lehiaketaren edizioetara aurkeztutako argazkiak biltzen dituen erakusketa batean erakustea, eta hala eskatzen duten kultura-ekipamenduetara eraman ahal izatea.

Parte-hartzaileak Ondarebiziari eta proiektua sustatzen duten ekipamenduei argazkiak eta autoretza euren web orrietan, sare sozialetan eta proiektu honen difusioarako edozein baliabidetan erabiltzeko baimena ematen diete.

Oinarri hauen interpretaziotik sorturiko arazo edo ustekabekoak, antolatzaileek, GAE(Gipuzkoako Argazkilari Elkarte eta IVASFOT (Instituto Vasco de Fotografía) -en zuzendaritza batzordeekin batera hauen kriterioaren arabera konpoduko dira.

● ARGAZKIEN BIDALKETA

- Argazkien bidalketa, Ondarebiziako web orrian ezarritako formualrioaren bidez soilik egingo da. Formulario honetan autorearen datu pertsonalak adieraziko dira eta irudiaren artxiboan ipiniko izenburu berdina.
- Argazkiak atxikituta egongo dira, kontaktu-informazioa bete ostean, eta irudi artxibo bakoitzean aurkeztutako izenburua adieraziko da.

● EPE-MUGA

Argazkiak jasotzeko epe-muga 2020ko urriaren 2tik azaroaren 1era, igandea, 23h59.

● EPAIMAHAIA

Bi epaimahai ezberdinek baloratuko dituzte argazkiak: epaimahai profesional bat eta epaimahai popular bat, bakoitzak bi sari emango dituztelarik.

Epaimahai profesionala: hasiera batean epaimahaiak museotako erakusketetan ipiniko diren 60 argazkiak aukeratuko ditu. Ondoren, aurkeztutako argazkiak baloratuko ditu, aurretiko aukeraketa eginez*, eta epaimahai profesionalaren sariak emango ditu. Erabakia apelaezina izango da.

Epaimahai profesionala osatzen dute: Gipuzkoako Argazki-Elkarteko (SFG) kide batek, IVASFOT-eko ordezkari batek.

Epaimahai popularra: online epaimahai popularraren sari bakarra.

Epaimahai popularra online: pasa den edizioan bezala, argazkiak web bitartez bozkatu ahal izango dira www.ondarebizia.com web orriaren bitartez. Erabiltzaile bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahal izango du. Aukeratutako* argazkiak blogean argitaratuko dira 2020ko azaroaren 8ean eta bozkaketak egun hortatik abenduaren 13eko gaueko 23:59ak bitarte egongo da aktibatua.

**Argazki bakoitzak sarietako bat bakarrik jaso dezake. Epaimahaiak argazkietako bat saridun bezala aukeratuko balu, argazkia ez litzateke epaimahai popularretik kenduko, baina erakusketako publikoak edo online bozkatzaileek aukeratuko balute, saria hurrengo argazki bozkatuenera joango litzateke.

● SARIAK

Epaimahai Profesionalaren Lehen saria: 500€

Epaimahai Profesionalaren Bigarren saria: 350€

Online Epaimahai Popular Presentzialaren saria: IVASFOT-en erabiltzeko 250€ko txartela;
online dendan erabili ahal izango da argazkigintzako materiala erosteko.

● EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Epaimahai profesionalaren erabakia argazki guztiak ikusi, bozkaketa indibidualaren ostean eta amankomuneko adostasun baten bitartez emango da. Online bidezko epaimahaia popularraren erabakia online jasoko diren bozken emaitzaren bitartez jakingo da. Online bozkatzeko epea azaroaren 6an irekiko da eta abenduaren 6eko gauetako 23:59etan itxi. Epaimahai profesionalaren eta popularraren erabakiak 2020ko abenduaren 18an jakingo dira. Hautatutako argazkiak zeintzuk izan diren Ondarebiziaren sare sozielen bidez jakinaraziko da.